


# Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko maiatzaren 27a / IV. urtea / 129. zenbakia

## Katedrala, seiehun urte garbituta

Gaur bezalako egun batean, duela seiehun urte, Lancelot Nafarroakoak paratu zuen egun Iruñeko katedrala den elizaren lehen harria. Lau urte lehenago eroritako eliza erromanikoaren hondakinen gainean eraikita, Donejakue Bideko eliza gotiko garrantzitsuenetakoa izan zen, baina denborak ez ditu nagusiak barkatzen. Horiek, hain zuzen ere, jasaten dute bortitzen bere martxa etengabekoa. Horregatik, seiehun urtetako ajea gainean, berrikuntzetan sartuta dago egun katedrala. Irailean zabalduko da lanen lehendabiziko zatia, hau da elizaren barrualdea, eta ondoren aitzinaldea,

teilatua eta klaustroari ekin beharko zaie. Urtebetetzearen ospakizunak, beraz, lau hilabetez atzeratuko dira, baina orduan eliza berri-berriak ospatuko ditu.



Seiehun urte ditu Iruñeko katedralak.

JOSE LACALLE

## Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Gure artean boterearen jabe izan eta handik laister justiziaren menpe egotea tokatu zaio bati baino gehiagori.

Harropuzkeriz manatu eta geroxeago burua nun sartu ez dakienik ere bada.

Eskailerak etziren soilik igotzeko egin, jeixteko ere badira. Batzuk uste zuten hangoian zeudela etzela sekulan jeitxi beharrik izanen. Zeinen

oker zeuden. Zenbat eta gogorrago erori orduan eta kolpe gogorrago jasaten da. Eta behin eroriz gero errexa da bai, zuhaitzetik ezpalak ateratzea.

Egunotan ez da kupidarik izaten krudela izandakoarentzat.

Gaur bertan ere nire izarra ez da distiratsu ageri bainan ez dezala inork pentsa itzalirik dagoenik, munduak buelta asko ematen ditu eta.

## Munduak buelta asko ematen ditu

**E**gun batean pobre, beste batez jauna. Buelta asko ematen ditu munduak eta jira-bira horiek gauzak eta jendeak iraultzen dituzte, mundua, mundu denez geroztik. Haize bolada batek hankaz gora jartzen du zutik dihoana eta esku maitekor batek eroria zutitzen

lagun dezake.

Afrikarren arteko borroka latzek egun batetik bestera aldatetarik dakartzate. Bezperan sarraskiaren biktimak izan direnak garaile suertatzen dira toki berean hurrengo egunean.

### BERTSO SAIOAK



**Manolo Arozena**, J. Fermin Argiñarena eta Iñigo Olaetxea bertsolarien saioa izanen da gaur, maiatzak 27, Burlatako Hilarion Eslaba eskolatan. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 21.00etan hasiko da.

**Jokin Sorozabal**, Zeberio eta Loidisalete bertsolariak ariko dira bihar larunbata, hilak 28, Goizuetako Umore Ona elkarrean. Bertso-afari moduan antolatua, gaueko 22.00etan hasiko da. Ondoren, txiste txapelketa hasiko da partaideen artean; epaile, bertsolariak izango dira.

### MUSIKA



**Sorotan Bele**, Su Ta Gar eta Lin Ton Taun musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar larunbata, maiatzak 28, Atarrabiako pilotalekuan. Gaueko 22.30etatik aurrera izanen da.

**Karkaxa**, Anima Vili eta Brankan musika taldeen kontzertua izango da bihar larunbata, hilak 28, Goizuetan. Gazte Asanbladak antolatuta, herriko pilotalekuan izango da, gaueko 10.30etatik aurrera.

**Anker** taldeak joko du bihar, larunbata, Garaioan, AEKren alde antolatu den gaupasaren barruan.

### BESTELAKOAK



**Sebastopoleko Titiriteroak** izeneko antzerki taldeak 'Desechos Humanos' izeneko antzez-lana taularatuko du asteburu honetan Murieta eta Figarol herrietan, Gobernuak antolatutako Ubaberriko Bira programaren barruan. Bihar arratsaldeko 18.00etan Murietako plazan izango dira, eta igandean, Figarolgo kiroldegian, ordu berean.

**Irurtzango inguruak** ezagutzeko mendi txirindularitza ibilaldia antolatu du Sakanako Kirol Elkartek igande honetarako, maiatzak 29. Ibilbidea 25-30 kilometroa izango da. Irurtzunen hasi eta handik Aizkorbe, Larunbe, Izurdiaga, Etxarren, Santiago Itsasperri, Egiarreta, Hiri-berri, Ihabar, Satrustegi eta Zuhatzutik pasatu ostean berriro Irurtzunen amaituko da. Goizeko 9.30etan izanen da ateratzeko ordua, Irurtzango Foru enparantzian.

## NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

# Nafarroa Intsumitua. Telegrama

Joan den astelehenean, prentsaurrean, ia ehun lagunek bere burua salatu zuten 'Vuelta Ciclista a España' Berrainen moztu izanagatik. Duela bi aste, Burlatan, Nafarroa Intsumitua sortu berriak kontzertu gogoangarria antolatu zuen. Asteazkenean, Eguzki Irratian, 'barruan' direnei zuzendutako agurrek irriño konplizea marrazten digute. Ehundik gora nafar in-

kartzela zigorrak kendu eta eraginkoragoak izanen diren hainbat zigor administratibo indarrean jarri nahi ditu. Lege eta Justizia espainiarrak Etxarri-Aranazko alkatea kargutik bota du. Udal bilkurak aho batez hartutako erabakia eta herritarren babesa ez dira aski egun.

Imotzeko udal batzarrean, 'cabo tirilla' izateko ametsetan galdu omen den EAKo zinegotzi batek errandako 'soldaduska

beraz, etenik; ez egun eta, Esparak zehaztasun osoz aditzera emanen digun bezala, ez inoiz. 1841erartio nafar gazteek ez zuten Espainiako armadan zerbitzatu beharrik. Gatazka Erreinuaren lurraldean izanik eta nafarrek soilik osatutako gudaosteetan ihardun behar zuten armadan. Egun, intsumitu gehienok ez lukete egoera hura ere onartuko. Ez lukete erreinu sistimarik defendituko ez eta inolako



tsumitu Iruñeko espetxean ditugu aspaldi. Horietaik berrogei pasatxo bigarren graduari, gau eta egun itzalean. Epaileak zigor osoa agindu du intsumitu gehieneko duela bi hilabeterartio. Mata jauna sekzio horretako buru denetik urtebeteko zigorra agintzen ari da. Hiru aste da, Iruñeko Polizia Munizipalak Burlatako kontzertua iragartzen zuten kartelak paratzen ari ziren hiru gazte jipoitu, atxilotu eta biluztarazi zituen Iratxe Monastegiko egoitzan. Belloch hiperministroaren legetasmo berriak

betebehar bat da' esaldiaren oihartzuna Izara heldu da. Iruñeko alkateak, bere maila kulturala uste dena baino altuagoa dela argi gera dadin, intsumituak 'delincuentes' direla eman zuen jakitera aspaldi. Bihar, larunbata, Nafarroa Intsumitua izenpean bildutako intsumitu taldeek biltzarra egingen dute Lizarran. Datoren egunotan, Jose Mari Esparza, idazle eta argitardari tafallarrak nafar intsumisioaren historia jorratzen duen liburua plazaratuko du.

Intsumisioaren aferak ez du,

armadarik osatuko ere. Nafarroa Intsumitua leloa ez da gaurkoa. Garai bateko lege nafarrek babesten zuten. Egun aitzakirik gabeko intsumisioa dugu. Gardena.

Katea ez da eten; oraikoa, ordea, urragaitza da, borondate gartsutik sortutakoa. 14 urtez gidatzeko baimenik gabe, bozkatzeko eta hautetsiak izateko aukerarik gabe, administrazioan lan egin ezinik eta ikasketa nahiz ikerketa dirulaguntzarik ukan gabe... baina Intsumisioa iraunen du zutik.

## ASTEKO PERTSONAIK



**Juan Cruz Alli**  
Gobernuko lehendakaria



**Jacek Ziober**  
Futbolaria

UPNren barruko giroa nahasi samarra zegoela jakina zen, aspalditik gainera, baina azken egun hauetako gertaerak ikusi eta gero saltsa izugarria suma daiteke. Huarte enpresa ikertzeko batzordean deklaratu eskatu zuen lehendakariak joan den larunbatean, eta asteartean bertan horrela egin zuen, Huartek Jaime alkatearen bitartez UPN finantzatzeko laguntza eskaini zuela esanez. Alkatea deitu zuten berehala deklaratzera, eta noski, joan behar izan zuen. Haserre atera zen Jaime, nola ez, «minduta» zegoela. Orain gutxi, europarlamentaria izendatzean, Jaime eta Sanz Alliren kontra agertu ziren, berak nahi zuenaren aurkako botoa eman zuten, eta orain 'ordea' jasotzen ari direla diote. Ikusi beharko da zertan amaitzen den 'foiletai' berezi hau.

Bigarren mailan jokatzeko ez zuela gustuko eta, beste talderen batera joatea erabaki zuen Jacek Ziober Osasunako jokalaririk. Frantziako taldeen eskaintzak zituela zioen, baina azkenean, eskaintza bigarren mailako beste talde batena zela eta, Osasun jarraituko du aurrerariak, geratzen zaizkion bi urteetan behintzat. Hori bai, garbi esan zuen «urtebete besterik ez» dutela bigarren mailan egingo: «Berehala igoko gara». Hau lortzeko entrenatzaile «indartsua» behar dutela azpimarratu zuen; «diziplina ezarri beharko du eta lan serioa egin». Izenak aipatzerakoan, Txetxu Rojorena atera zuen, eta egokia iruditzen zitzaioela adierazi zuen. Hau, ordea, ekainaren lehen erabakiko da, Garro edo Ruiz, zein izango den hurrengo presidentea argitu ondoren.

## AHAZTU GABE!

### EUSKARAREN ASTEA



**Lakuntzako Euskara Batzordeak** Euskararen Astea antolatu du egun hauetarako, ekitaldi ugari prestatuz. Atzo hasi zen, haurrentzako pelikula batekin, eta igandera arte iraunen du. Gaur, ostirala, Parke Naturalei buruzko hitzaldia izanen da, gaueko 21.00etan, Udaletxeko Batzarre gelan. Urdiaingo alkatea, Gipuzkoako Diputazioko tekniko bat, EHNE sindikatu-ko ordezkari bat eta Eguzki talde ekologistako kide bat izanen dira hizlariak. Bihar larunbata, arratsaldean, herriko haurrentzako jokoak izango dira plazan, 17.00etatik aurrera. Eta gauez, berriz, Nahi Ta Nahiez eta Behin Betiko taldeen kontzertua antolatu dute, herriko plazan, gaueko 22.30etan. Igandearako ere ekitaldi ugari prestatu ditu Euskara Batzordeak. Goizeko 11.00etan, Altsasuko Gaiteroak ariko dira, ordubetik beranduago Ozarki Txarangak alaituko ditu herriko kale guztiak. Ordu batean lehiaketa egingen da bost probarekin: irrintziak, txisteak, abestiak, bertsoak eta bat-batekoa.

### JENERO XUMEKOAK

#### Klaus Kinski Aranoko neskari telurikuki (I)

Zerua ukitzen da gorputz batean eskua paratzean. Zure gorputz zabala ikusten dudanean, sekula amaitzen ez den ibai hori, tira panpoxa, txoriek kantatzen duten ispilu gardez oroitzen naiz, eta argia irratien urratzen duen gozoa sentiarazten didazu.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenean, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

# Maila polita eta aurpegi berriak Eskolarteko Bertsolari txapelketan

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Ekhine Etxepeteleku eta Xabier Silveira lesakarrak izan ziren Nafarroako Eskolarteko Bertso Txapelketako irabazleak, joan den ostiralean jokatu zen finalaren ondotik. Azpimarratzekoa izan zen azken bertso saioan ikusi zen jendetza eta baita OHOk bertsolarien artean nabarmendu den maila polita ere.

Bertsolari handiengana jauzi egin duten belaunaldiaren ondoko txapelketa zen hau. Estitxu Arozena, Amaia Telletxea, Xabier Silveira eta Estitxu Fernandez dagoeneko ezagunak eta bertsolari txapelketa handietan parte hartu izandakoak, ikusmina bazegoen horien ordezkorik etorriko ote zen, maila aurrekoena bezain ona izanen zen. Eta ez dute hutsik egin. Bai ertainekoen artean bai gazteen artean bertso politak sortu ziren, eta bigarren belaunaldi gaztea, beraz, martxan dago.

Eskolarteko Bertsolari Txapelketa honek bazuen hainbat berrikuntza. Lehendabiziko aldiz antolatua zegoen 14 urtetik beheitikoendako bat-bateko saioa, eta bertso zaharren lehiaketa soilik zonaka egin da, finalik gabe. Ertainekoendako bi kanporaketa egin ziren, Etxarri-Aranatzen eta Elizondon, eta hamar lagunek hartu zuten parte: horietatik sei egon ziren finalean. OHOk ikasleendako kanporaketa bakarria egin zen Lesakan, eta parte hartu zuten hama-



Ekhine Etxepeteleku, ostiraleko finalean.

PATXI CASCANTE

rretatik soilik lau egon ziren Iruñeko finalean. Horretaz gain, lau oinak emanda egindako lehiaketan 30 ikaslek hartu zuten parte, Leitzan, Atarrabian eta Etxarri-Aranatzen egindako kanporaketetan.

Ikusmina bazegoen, beraz, bertso harrobiaren azken emaitzak ikusteko, eta zerrenda ez dela eten garbi dago. Gazteen artean, azpimarratzekoa da Bortzirietako Bertso Eskolaren fruitua. Laurak Lesakakoak ziren: Ekhine Etxepeteleku, Alaitz Reondo, Erika Lagoma eta Xabier Terreros. Horrelaxe gelditu ziren

azken sailkapenean. Eta maila polita erakutsiz, Manu Gomez antolatzaileak dioenez. «Beste urteekiko gazte hauek erakutsi duten erregulartasuna, akats nabarmenik egin gabe, izan da azpimarragarriena. Aurreko urteetan bagenekien bertsolariak eman behar zutena, baina oraingoan bigarren belaunaldiaren bila gindoazen, atzetik ezer ez zegoen eta. Orain ikusten dugu atzean dagoena».

Ertainekoen artean, azpimarratzekoa da azken urteotako finalik zabalena izan dela, bertsolarien jaioterria kontuan hartuz

gero. Izan ere, Bortzirietako nagusitasuna nolabait zabaldu baita: sei partaideen artean bi Bortzirietakoak ziren, beste bi Elizondokoak, eta Gaintzako eta Aranoko bana. Azken sailkapena: Xabier Silveira (Lesaka); Xabier Legarreta (Arano); Oskar Estanga (Gaintza); Maribeltxa Unanua (Elizondo); Bihotz Unanua (Elizondo) eta Aitor Telletxea (Arantza). Etxepeteleku eta Silveirak parte hartuko dute ekainaren 3an Hendaian (Lapurdi) izanen den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan.

## Ortzaide

# Hats Berri elkarteak kudeatzen duen haurtzaindegia lau toki berri ditu

L.E. / BAIONA

Hats Berri elkarteak kudeatzen duen Orzaizeko haurtzaindegia handitu dela eman du jakitera. Lau toki berri dira duela bi hilabete onartuak, orotara hamasei toki eskainiko dituen egitura. Nafarroa Beherean haurtzaindegia bat baizik ez da, dirudenez horrelako egiturak hiri handietan baizik ez baitira. Hargatik, lanean ari diren amentzat zerbitzu premiazkoa da ororengandik guziz estimatua. Hats Berri elkarteak Orzaizen sortu zuen, 1988.ean.

Hats Berri bi zerbitzu es-

kaintzen ditu haurtzaindegiaren bidez: bata 'crèche' izenarekin onetsia dena eta bestea 'halte-garderie' bezala. Administrazioak biak ezberdintzen ditu: lehendabizikoan haurrak egun osoan bederen hiru egun astean zaintzen dira eta bestean egun erdiak baizik ez dira, hiru egun gehienik. Zazpi lan postu badira, ezusteko garrantzia daukan egitura: denbora osozko bat, bi lanpostu 25 ordukoak astean eta lau postu 'CES' modukoak, Hats Berri elkarte bezala lortuak.

Haurtzaindegiaren biziaraztea diru mailan arazo nagusia da. Orzaizeko herriko Etxeak parte

pagatzen du. Haurren jatorrizko herrietako udalek ere ordainketa zenbait egiten dute. Departamenduko Kontseiluak udalek eman % 10 gehitzen dio diru kuxari. 'Haurtzaindegi' egiturak hurbildik kontrolatzen ditu DASS administrazioak erakundeak. Osasun Ministerioarekin babespean den Afera Sanitario eta Sozialen Zuzendaritzak haurtzaindegiaren garbitasuna hurbildik kontrolatzen du baita ere begiraleen kalifikazioa.

Gahardu auzoan, Garazitik Kanborako bide bazterrean den haurtzaindegia eskualdearen bizitza laguntzen eta errazten du.

## Beire

# Aterbeko udalekuetako epea astelehenean amaituko da

BEIRE

Uztailaren 8an hasiko dira Beireko aterbean urtero antolatzen diren euskarazko udalekuak. Gaztelan elkarteak antolatuta, bost urte dira dagoeneko Pitillastik gertu dagoen herri honetan ekitaldiak antolatzen direla, eta aurten izena emateko epea heldu den astelehenean amaituko da.

Euskarazko udalekuak uztailaren 8tik 15era bitarte eta abuztuaren 8tik 15era bitarte izango dira, eta 19.000 pezeta balio dute.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta




## Ludopatiaren alde

Kaixo ludopata anonimook, Juan Kruz Lakasta naiz, 23 urte ditut, eta ludopata amorratua naiz. Gainera ez naiz tragaperretan sosak gastatzen dituzten horietakoa. Nirea larriagoa da. Makinetetan aritzen naiz. Txanponak gastatzen ditut horiek berreskuratzeko inolako itxaropenik gabe.

Egia esateko, ezin nezake zehazki esan noiz hasi nintzen makinetekin jolasean. Hain gaztea nintzen, nire oroimenak ez du horren inguruko zehaztapenik gorde. Panpinen ordez makiltxo petralak erabiltzen zituzten futbol makineta eskematikoetan hasi nintzen, eta martizar makineta bat izan zen benetan harripatu ninduen lehena. Goitik behera hamaika martizar espaziuntzi jaisten ziren, eta zuk, zure tankean, etxola batzuen atzetik tiro egiten zenien bakarrik ere gera ez zedin arte.

Horren atzetik beste makina bat makineta etorriko ziren, gero eta modernoagoak, eta guztiak ezaugarri bera edukiko zuten, ez nindutela gehiegi pentsatzera behartuko. Niretzat makinetak frustrazioak sublimatzeko bide azkar eta ezin hobea izan dira beti. Baina ez da nirea kasu bakarria, hor daude nire koadrilako beste bi lagun, eta Loretxeko ezaguna, eta Eguzki Irratiko laguna, eta friski hori, eta Jarautan barna ibiltzen den auzokidea, eta beste hainbat.

Gu guztion ihesbidea kolokan jarri dute azken bolada honetan. Pentsarazten duten makinetak modan jarri dira —Triviala horren lekuko—, eta azken egunotan horien artean krudelena heldu da Iruñera. Ez digu martizar edo bestelakorik hiltzeko paradirik ematen, eta puzzleak egin, kultura galderak erantzun eta karratuak zenbatzera behartzen gaitu. Gero eta taberna gehiagotan jartzen ari dira, eta gainera gero eta zailagoa da makineta arrunt bat topatzea. Gu guztion ihesbidea itxi dute. Tabernetako makinetak kontraltzen dituen esku beltzak jakin dezala oiñu berri bat zabaltzen ari dela Iruñeko Alde Zaharrean barna, 'Ludopatiaren alde, ekinga zuzena!'.



**I**ruñeko katedralako lehen harria jarri zenetik sei bete dira gaur, baina urtebetetzea lau hilabete edo atzeratuko da, garbiketa eta berritze prozesuan maita baitago eliza. Donejakue Bidean dagoen gotiko estilokoko elizarik nagusienetakoa, horrela, igarotasunaren bila.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

1394ko maiatzaren 27an paratu zen Iruñeko katedralako lehen harria. Lantzelot Nafarroakoak —Karlos III.aren semea— izan zuen jartzeko ohorea, eta orduko kronikek diotenez, urrezko florin bat sartu zuen barruan. Katedralako lanek ia mende bat iraun zuten, eta errege, artzapezpiku eta herritar frankok izan zuten zerikusirik lanetan.

Historia iragana gogoratzeko idazten dela diote, baina frankotan soilik egunerokoari ematen zaio garrantzia. Gaur egun katedral gotiko ederra besterik ez da geratzen, baina hori ez zen Iruñeko lehen eliza nagusia izan. Toki askotan gertatu den gisan, eliza erromaniko baten tokia hartu zuen gaurkoak, baina horren aztarna batzuk baino ez dira gelditzen. Aztarna horiek berriro aztertu ahal izan dira egun egiten ari diren berrikuntzei esker. Izan ere, zorua altxatzean, eliza erromanikoaren planta azaldu baitzen.

Hasieran bertan erromaniko aurretiko eraikina zegoen, 924an Abd-Al-Rahman eta bere mairuek hondatuta. Antso Nagusiak berreraiki zuen 1024an eta 1100. urtean eraikin erromanikoa altxatzen hasi zen. 70 x 50 zaba-

lera zuen, eta orduko kronikek diote Donejakue Bideko garrantzitsuenetakoa zela. 1127an amaitu zen, eta urte berean kontsagratu zuen Antso Larrosa-koak, Alfonso Borrokatzailearen presentziarekin.

Baina 1391ko uztailaren lehen hondatu egin zen erabat elizaren erdialdeko partea, eta katedral gotikoaren eraikuntzari ekin zitzaion hortik lau urtera. Mende oso bat iraungo zuten lanok, eta hiru lan-maisu garrantzitsu izan zituzten. Perrin Simurrekoa frantziarrak plan orokorra zehaztu zuen, Baionako katedralari erreparatu. Bera izan zen lehen zuzendaria, 1403. urtera arte, hil zen arte, hain zuten. Bere atzetik Lizarrako Martin Periz izan zen buru, baina ezagunena Jehan Lome Tournaykoa izan zen. 1439tik 1449ra bitarte lanen ardurua bere gainean egon zen.

Bukatu eta bost mende geroago, garbiketa ederra egin zaio katedralari. 1992ko irailean hasitako lanak Principe de Viana eraikundearen proiekturik garrantzitsuenak izan da urte hauetan, aurrikusita dauden Liburutegi Orokorrekin —Iruñeko Planetarioaren ondoan eraikiko dena— eta Artxibo Orokorrekin batera. Azken urteotan 154 milioi pezeta sartu dira hondarreko lanetan, eta barrualdea irailerako bukatuta egongo bada ere, oraindik klaustroa, teilatua eta aitzinaldea geldituko dira zain.

Lanak elizako zorua altxatuz hasi ziren. Orduan azaldu ziren katedral erromanikoaren oinarriak eta hiri erromatarraren aztarnak. Ondoren, hormak garbitu eta berritu egin ziren, eta aurretik egindako lanen kalteak konpondu. Halaber, leihoak konpondu ziren, eta beira-leihoak garbitu eta lehengoratu ziren. Azkenik, hormetako pinturak azalderatu dira. Egun zorua paratu, eta erre-aulak garbitu eta konpontzen ari dira, eta aurrerantzean soilik kalafakzioa eta argiztapena faltako dira.

Bukatu eta bost mende geroago, garbiketa ederra egin zaio katedralari. 1992ko irailean hasitako lanak Principe de Viana eraikundearen proiekturik garrantzitsuenak izan da urte hauetan, aurrikusita dauden Liburutegi Orokorrekin —Iruñeko Planetarioaren ondoan eraikiko dena— eta Artxibo Orokorrekin batera. Azken urteotan 154 milioi pezeta sartu dira hondarreko lanetan, eta barrualdea irailerako bukatuta egongo bada ere, oraindik klaustroa, teilatua eta aitzinaldea geldituko dira zain.

## Seieh urte igarota, garbiketa

go, garbiketa ederra egin zaio katedralari. 1992ko irailean hasitako lanak Principe de Viana eraikundearen proiekturik garrantzitsuenak izan da urte hauetan, aurrikusita dauden Liburutegi Orokorrekin —Iruñeko Planetarioaren ondoan eraikiko dena— eta Artxibo Orokorrekin batera. Azken urteotan 154 milioi pezeta sartu dira hondarreko lanetan, eta barrualdea irailerako bukatuta egongo bada ere, oraindik klaustroa, teilatua eta aitzinaldea geldituko dira zain.

Lanak elizako zorua altxatuz hasi ziren. Orduan azaldu ziren katedral erromanikoaren oinarriak eta hiri erromatarraren aztarnak. Ondoren, hormak garbitu eta berritu egin ziren, eta aurretik egindako lanen kalteak konpondu. Halaber, leihoak konpondu ziren, eta beira-leihoak garbitu eta lehengoratu ziren. Azkenik, hormetako pinturak azalderatu dira. Egun zorua paratu, eta erre-aulak garbitu eta konpontzen ari dira, eta aurrerantzean soilik kalafakzioa eta argiztapena faltako dira.

Koadroek ere eman dute nahiko lan. Agertu izan dira ximurdurak eta tolesdurak zituzten koadroak, markoak ez zirela behar bezala eusten. Orduan, markoak kendu eta plantxatu egin behar da, bere ohizko itxura emateko. Ondoren, berriro jartzen dira

Hau da eraiki zenetik egin den lehen garbiketa handia. Garaiak bestelakoak dira, baina orduan Curia kaletik gora gurdiak bete harri igotzen baziren etengabe, orain kamioak ari dira gora eta behera hondakin eta harlauzekin. Orduan zizelariak kapitelak eta irudiak lantzen ari baziren, egun langileak hondatutakoak berritzen ari dira, berriro eraikiko balute bezala, eta zerbait sortzen ari den sentsazio oso berdintsua izan beharko zuten gaurkoek zein ordukoek.

Denboraren poderioz franko narrastu eta hondatu da orduan edertasun handiz eraiki zena. Lan handienetakoa hori lehen-goratzeko izan da, zeuden altzari eta erretaulekin hasita. Zura izan da urteak txarkien eramaten dituenetakoa. Hori dela eta, baltzuetan, osoki berregin egin behar dira piezak. Horretarako zura gogortu egin behar da, eta orduan material sintetikoak erabiltzen dira. Ondoren, falta dena berrosatzen da. Badira pipiak janda dauden zatiak ere, hautsa direnak, eta bertan berriro egin behar da zati osoa. Horretarako, molnatu eta lantzeko errazak diren zurak erabiliz, berriro zizeltzen da pieza osoa eta bertan paratzen da, txerto baten bidez.

Koadroek ere eman dute nahiko lan. Agertu izan dira ximurdurak eta tolesdurak zituzten koadroak, markoak ez zirela behar bezala eusten. Orduan, markoak kendu eta plantxatu egin behar da, bere ohizko itxura emateko. Ondoren, berriro jartzen dira

erabat garbitu eta errekuperatu. «Ez genekien zer zegoen azpian» azaldu du lan guzti hauek egiten ari den CRC enpresako langileetako batek, «baina kontuan hartuz katedral honek zuen garrantzia, susmatzen genuen pinturak izan, izan zirela». Pintura guztiak zaharberritu ondoren, harria garbitu eta tarreak bete dira. Ez da ezohizko lana izan, horrelako berrikuntzak tartean izan behar baituzte, baina antzeko zerbait berriro egiteko urte askok pasatu beharko dute.



markoaren barruan. Gehienetan ere pinturak oso ilunak azaltzen dira, pintura egiteko erabili diren berrizak herdoildu diren seinale. Garbiketa egin behar da orduan: berriro tindatzen da, eta itsaski batekin estaltzen da ondoren.

Hormak izan dira berritze lan sakona eskatu duten hirugarren arloa. Katedralan eskegita zeuden pintura franko kareaz zeuden estalita erabat, mendeetan egin diren lanengatik. Tokian tokiko azterketak egin behar izan dira, eta pinturak zeuden tokietan,

erabat garbitu eta errekuperatu. «Ez genekien zer zegoen azpian» azaldu du lan guzti hauek egiten ari den CRC enpresako langileetako batek, «baina kontuan hartuz katedral honek zuen garrantzia, susmatzen genuen pinturak izan, izan zirela». Pintura guztiak zaharberritu ondoren, harria garbitu eta tarreak bete dira. Ez da ezohizko lana izan, horrelako berrikuntzak tartean izan behar baituzte, baina antzeko zerbait berriro egiteko urte askok pasatu beharko dute.

## Haur literaturaz

● Azken hontan hizkuntzaren erabilpena sustatu beharrez normahik antolatzen dituen haurren arteko lehiaketak; gobernuak, Iruñeko udala, eskola zemeit, Euskara zerbitzuak... halako literaturzale sukarak batek harturik dauzka guztiak, haurrak eta mintzoa hestu lotzeko ezinbertzeko bide bakarra bailitzan.



Berriki suertatu zait holako txapelketa baten irakur mahaian egon beharra, eta, Iruñeko haurren Euskarari usaturik nizeenez, aitor dezadan kurios nintzela haur euskaldunagoek zer egiten zuten ikusteko.

Hameka ipuin leitu ondoren etsipena ezinago handia izan da.

Eskolak ez ditu, bistan denez, herri Euskara eta ikastetxekoa behar adina uzartzen; ez du hizkera propioa baloratzen, sendotzen eta hurbiltzen, xakina, batuari.

Hontaz landa badugu bertze egin behar larria, orai egitekoa, luzamendutan ibili gabe. Herri literaturari buruz ari niz. Beihala Azkue, Leikuona, Barbier, Barandiaran eta bertze ibili ziren holako ibilbidetan barna, baina oino ere bada lan ausarki egiteko eta denbora guti, zeren eta xakintza dutenak baitzaizkigu joaten ari, egunero...

Sortu zaidan galdeak zerikusirik dauka aipatu bi gaiekin: zergatik ez ditugu bi aldeak uzartzen? Erran nahi baita, zergatik ez dira haurren arteko 'lehiaketak' antolatzen herri literatura biltzeko?


Haurrek ez lukete urrunera jo beharrik izanen, etxean berean atxeman baidezakete xakin bidea: gurasoak, aita-txi-amatxiak, osaba-izebak...

Gisa hontaz haurra urbi-laraziko genuke herri hizkerara, haren xaharregan...

Zemeit kasotan (Ultzaman, Erron, Aezkoan...) zubiak eraikiko lirateke aita-txi-amatxi eta hila euskaldunen artean, guraso erdalunen gaintetik, sakontzen eta sendotzen guzti motibapena.


Hortaz landa uzta ederra bil genezake, ezaguna gehiena agian, baina beti ere tartean pitxiren batekin. Ondoreen liburu gisan emanik bertso, kanta, erranera... funtsean irakurgai eta ikasgai gustagarri montioka.

Ezker eskuin hedatuz ideia, azkenean badirudi kontuan hartu behar dutela Hizkuntz Politikan. Guzti atseginerako, uzta on!




Azken urteotan egindako lan horien pintura guztiak lehiaketan dira, eta erre-aula eta irudien kon-trako tratamenduak egiteko, guztiz konpontzeko. Hainbat nean, goialdean zaharretan pinturen detaile bat. Goialdean, guztiz berritu diren eta beira artistikoen ikuspegi...

JOXE LA CALLE





XAKEAN



Iruñeko Hiria Torneo itxiaren hirugarren ihardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 29an jokatu. Peter Leko, 2.555 ELOkoa (Hungaria)-Jordi Magem, 2.505 ELOkoa (Katalunia).

1. e4, c5; 2. Zf3, Zc6; 3. d4,d4; 4. Zd4, Zf6; 5. Zc3, e5; 6. dZ-b5,d6; 7. Ag5, a6; 8. Za3, b5; 9. Af6, f6; 10. Zd5, Ag7; 11. Ad3, Ze7; 12. Ze7, De7; 13. c3, f5. Peoia harapatuz gero, 'e4' eta 'Af5' letozke. Erdigunearen inguruko borroka hasi da. 14. Zc2, Dg5; 15. 0-0, Ab7; 16. f3. Ikus Koadroa. 'f5-eko' peoiak laguntza beharrean dirudi. Baina beltzek saldu egingen dute. 16..., 0-0; 17. f5,d5; 18. a4,e4; 19. Ae2, Ae5. 'Df5' jokaldiak ez zuen balio: '20. e4, De4; 21. Ad3'.

20. De1, b4; 21. Zb4 ,d4; 22. d4, Ad4 xa; 23. Eh1, Ab2; 24. Gb1, Ae5; 25.e4. Erabakia zaila zen. Posizioa beltzen aldekoa aterako da. 25..., Ae4; 26. Af3, Df4; 27. Dg3 xa, Dg3; 28. g3, Ab1; 29. aa8, Ga8; 30. Gb1, Gb8; 31. Ge1, Ag3; 32.Ge3,Af4; 33.Ge4,Ad6; 34. Zd3, Gb1 xa; 35. Ge1, Ge1 xa; 36. Ze1, h5; 37. g3. Ez zegoen jokaldi onik. 37..., Ag3; 38. Zd3, Eg7; 39. Zc5, h4; 40. Ze4, Eh6; 41. Eg2, Eh5; 42. Eh3, Ac7; 43. Zd2, Af4; 44. Ze4, Ag3; 45. f6, Ae5; 46. a5, Ag3; 47. Zc5, Eg5; 48. Ze4 xa, Ef5; 49. Zc5, Ef6; 50. Za6, Ad6; 51. Eh4, Ef5; 52. Eh3, Ef4; 53. Eg2, Ee3; 54. Ef1, Ef3; 55. Ee1, ee3; 56. Ed1, Ed3; 57. Ee1, Ec4. Partida erabakita dago. Txuriek etsi zuten.


## Boligrafo bat bihurtu naiz

Osteguna zen eta neukan boligrafoaren tinta gastatu zenez, beste bat erostera joan nintzen. Igone izeneko paperadendara joan nintzen eta beti erosten nuen boligrafoa erosi nuen. Etxera ailegatu nintzen eta afaldu ondoren boligrafoa hartuz letra bat idaztera nindoanean boligrafoaren barrenean sartu nintzen. Miragarria zen hartu edo ukitu nuenean txiki bihurtu nintzela eta boliren barruan sartu nintzela. Minutua pasatu baino lehen ni urdin-urdina eginda nengoan. Tinta pixka bat edan nuen eta koka-kola gustua zeukan. Jandak arratseko ordukiak ziren eta boligrafoaren tinta erdia edanda neukan. Logalea neukan eta begiak itxiz lokartu egin nintzen. Ez nuen uste tintak oxigenorik zuenik baina nik oso erraz arnas hartzen nuen.


«Gertatzen ari zaidana sorginkeria izan al da?» esaten nuen nere barnerako. Base-ri batean bizi nintzen eta lau anai-arreba ginen. Hiru neska eta mutil bat. Nere gurasoek Maria eta Igor zuten izena eta gurekin ere amona bizi zen. Amonak, berriz, Mertxe zuen izena.

Goiza ailegatu zen eta ni ordurako erne nengoan. Nere ama ni esnatzera etorri zenean ni ez nengoela ikustean ez zen harritu ni komunean nengoela pentsatu bait zuen. Nere ahizpa nere ohera etorri zen eta boligrafoa mugitzen ari zela ikusi zuen. Ni erotuta bait nengoan bueltak ematen nere ahizpa konturatzeke. Nere ahizpak Ana zuen izena eta boligrafoa mugitzen ari zela ikustean harritu egin zen. Boligrafoa hartu eta marrazten hasi zen.

Ostirala zenez eta festa genuenez nere ama ez zen berriro deitzera etorri. Nere ahizpak oso ongi marrazten zuen eta asko gustatzen zitzaionez, marrazten egon zen ordu guztia. Boliak ez zuen tinta gehiegi baina nere ahizpak marrazten jarraitzen zuenez ni oso kontent nengoan. Nere ahizpa ez zen konturatzen ni boliaren barrenean nengoela, ni oso txiki bihurtu bait nintzen. Baina ni ere tinta gehiago ateratzen saiatzen nintzen. Hogeitalau or-



Martxus Perugorria  
(BERA)



du pasa ziren eta ni egun bat osoa jan gabe ezin nuen agoantatu. Tintak koka-kola zaporea zuenez nik ere edan egiten nuen. Bapatean nere amak oihukatuz esan zuen.

—Matxus, non zaude?— eta inorrek ez zuen erantzun. Ana idazten zegoen bitartean boligrafoa mugitu egin zen, nik boliaren barrenetik atera nahi nuen eta. Ana harrিতuta amarengana joan zen eta nere amak hau esan zion:

—Non dago Matxus?— eta Anak, harriturik, esan zuen:

—Ez dakit, baina boli hau asko mugitzen da!— eta amak erantzun zuen:

—Egia da, ez da geldirik egoten! Gero attari galdetuko diogu ea non duen lupa zer gertatzen den egiaztatzeke!

Ana harrিতuta zegoen baina nik ahaleginak

egiten jarraitzen nuen. Nere atta jatera igo zenean lupa hartu zuen baina nik ahaleginak egiten nituenez bolia mugitzen zen eta nere attak ezin zuen ikusi. Anak boligrafoa hartu eta marrazkia bukatu zuen. Marrazkia oso txapuza geratu zen baina Ana harrিতuta zegoen eta berriro ere amarengana joan zen. Amak berriro galdetu zuen:

—Non dago Matxus? Esan Ana! Nora joan da?— Eta Anak erantzun zion:

—Ez dakit, igoal Garbiñekin jolastera joan da!— Amak Garbiñeren etxera deitu zuen eta Garbiñeren etxean ez zegoen inor. Ni berriro ere indarrak egiten hasi nintzen tinta gutxi gelditzen bait zen. Anak paper bat hartu zuen eta boligrafoarekin, kontu handiz, marrazten hasi zen. Ama oso nerbiostua zegoen eta ni ere nerbiosten hasi nintzen ez bait nekien nola

aterako nintzen eta. Geratzen zuen tinta zurrupatu nuen baina boliak, hala ere, marrazten zuten. Anak marrazten jarraitzen zuen. Baina bapatean bolia xehe-zen eta ni zorionez boligrafoaren barrenetik atera nintzen. Korrika sukaldera joan nintzen eta

Amari esan nion:

—Ama, hemen nago; boliaren barrenetik atera naiz!— Ama pozik jarri zen desagertu nintzela pentsatu bait zuen. Eta hau esan zidan:

—Nola egon zara hainbeste denbora boligrafoaren barrenean? Arnasa hartzen al zenuen?

Galdera asko egin zituen eta denak erantzun nizekion baina dutxa eder bat hartzera joan nintzen. Dutxa ederra hartu nuen tintaz beteta bait nengoan.

Asko jan nuen tinta bakarrik jan bainuen eta gose handia neukan. Hurrengo egunean herri osoa kartekez bete zen eta bertan hau jartzen zuen: 'Bizidun bat bi egunetan boli baten barruan egon da'. Hori egiaztatzeke ipuin hau egin dut.

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak  
zure atean joka

Boxeoaren eritmoa dauka pilotak. Pilotan ezinezkoa da bi orduz aritzea. Zartak bezala zenbatzen dira pilotakadak.

## Zakarregiak teniserako, beratzegiak boxeorako

Gauzak ezin dira hola laburbildu, baina Britain Haundiko erloju metafisikoez diotenez, uste dugun baino beranduago da. Izanez ere, ez dugu betarik eulikeriatan ibiltzeko eta esan dezagun hitz gutxitan astiroago esatea mereziko lukeena. Euskal pilota eta bo-xeoaren senideak dira, pilota eta tenisa, ordea, ahaideak. Euskaldunak, euskaldun txerokeak bederen, askoz ere hurbilago daude New Yorkeko ring-etatik, Wimbledoneko printzesarengandik baino.

Pilotan, tenisean bezala, aurkakoa kantxaren erdigunetik al-

boratu egin behar da, baina hori lortzeko boxeoa bezala indarra behar da. Jokalari ederrena da dudarik gabe pilota ahalik eta urrunenera bidaltzearena, frontisen erdi erdian joz, eta hormari atxekiz. Tantua segituan amaitzea baino hobe da aurkakoa atzean akitzen edukitzea, bospasei zartaz, eta itolarrarian dagoenean pilota aurrean utzi, sikiran jakiteko pilota gixajoak ikusten ote duen. Pilotan esku beratzak dituen, nahiz izugarria izan, akabo, boxeoa bekainak beratzak izatea bezalaxe. Peloteoan ederki jotakoan eta aukira doazenean, ikusi ze aurpe-

gi duten pilotariak, eta alderatu tenislariak eta boxeolariak daukatenarekin. Tenisean eskuak eta raketa idortu, iragarki taulek errekomendatzen duten edaria zurrut egin eta txutxu-mutxu egin entrenatzailearekin. Boxeoan eta pilotan atsenaldiak zorronka egitekoak dira, hatsa ahoan lasaitzen saiatzekoak.

Boxeoaren eritmoa dauka pilotak. Pilotan ezinezkoa da bi orduz aritzea lehia izanez gero. Zartak balira bezala zenbatzen dira pilotakadak. Tenisean posible da lau orduz aritzea, harik eta gorputzak akabo esan arte. Boxeoan eta pilotan, ordea, lehiakideetako batek bestea txikitu arte. Tenisean lagun malguak behar dira, eta jokalariei azala gogortzen hasi bezain pronto abarrikatu egiten dira. Pilotan ez, unerik

egokiena, sasoirik onena izaten da pilotariak ongi jotzen ikasi duenean eta arerioaren zartak jasotzen ohitua denean. Eta bukatzeke, ukazina den beste azalpen bat. Petreko Jose Luisek ez du sekula telebistaren aurrean denbora galduko. Hala eta guztiz ere boxeoa eta pilota edukiz gero, egin behar guziak utzi eta telebistara joan ohi da. orain arte, boxeoa eta pilota ez ziren telebistan agertzen behiak deitzi behar direneko tenorean. Orain, berriz, askotan arratsaldeko seieta. Denborak aldatzen ari dira. Hala ere, nekeza da tenislari pelotari batek boxeolari pilotari bat irabaztea. Oraingoz hobe da zartako bat frontisen erdi-erdian, bete-betea aurrepian, zartako eder bat marraren ondoan baino, belarran baino.

**S**anfermin festak izango dira aztergai Iruñeko Ortzadar taldeak irailerako antolatu dituen Folklore eta Kultura Tradizionalari buruzko X. Jardunaldietan, festak bere baitan dituen ohitura zaharrak zein tradizio berriak aztertzeko. Azken asmo, topikoetatik kanpo eta tradizioaren barruan gelditzen den guztia ikertzea da.

## Sanferminak atipikoak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Zer daukate Sanferminek tradizioetik eta zer da berri-berria? Zer da benetan tradizioa, eta zer eranskina? Oso bestelakoak al ziren duela bi mendetako Euskal Herriko festarik garrantzitsuenak? Zapi gorritxo noiz hasi zen erabiltzen? Zergatik Riau-Riauaren garrantzia? Horrelako hamaika galdera egin dizkiete euren buruei iruindar frankok, esan baitaiteke ia urtetik urtera sortzen direla ohitura berriak. Ortzadar Iruñeko Euskal Folklore Taldeak heldu nahi izan die horrelako galderari eta garia eta ibintzea bereiztu nahi dute, edo behintzat jakin bereiztu behar ote den.

Orain arte egin diren Folklore eta Kultura Tradizionalari buruzko jardunaldiek nahiko gai zabalak hartu badituzte ere, oraingoan eremu zehatza eta mugatua hartu dute aintzat. Helburua, betikotzat hartzen ohi

baita eragina izan ote zuen ere.

Orobat, gaur egun ikutuezinak diruditen hainbat ekintza aztertu ahal izango dira, hala nola, Riau-Riau... «Orain askori iruditzen zaio astakeria hori kentzea» dio Usetxik, «baina hain historia txikia daukan... Aldiz, gauza batzuk desagertu dira betiko, eta beste asko bat-batean jarri». Nolanahi ere, oraindik benetako folklorea festaren izaeraren baitan dagoela diote taldean.

FOLK  
LORE

«Festa eta jendea bera da gelditzen dena: kalera ateratzeko indarra, jendeak gorde dituen ohiturak».

**ALDE HERRITARRA BERRESKURATU**

Orain arte egin den historia nahiko ofiziala izan omen da, soilik instituzio eta erakundeek antolatutako gauzak jaso baitituzte. Beste alde, ordea, ahaztu egin dute. «Festak bi aldeak izan ditu beti: alde instituzionala eta alde herritarra. Azken hau errekeratu nahi dugu jardunaldiotan, zer den Sanferminek, topikoetatik at, daukatena». Horretarako Nafarroatik ezezik beste lurralde batzuetako ikertzaileak izatea ere espero dute, kontuan hartu behar baita Iruñeko festak beste hainbat tokitan izan duen eragina.

Jardunaldien hamar urte hauetan ikertzaileen parteharitzeak gorakada nabarmena izan

**S**anferminetako topikoak zabaltzeko bide nagusietakoa izan zen Ernest Hemingway idazle amerikarra.

dena aztertzea eta ohitura edo tradizio galduak berreskuratzea. «Komunikabideetan eta liburuetan ateratzen den informazioa» dio Jon Usetxi Ortzadar taldeko partaideak, «ez da oso gauza objektiboa. Bakarrik topikoak ateratzen dira, eta askotan 'betikotzat' hartzen dira. Baina 'betiko' gauza horiek ez dira batera betikoak. Beraz, argitu nahi dugu zein izan den historia eta zein den Sanferminek, berez, daukatena».

Topikoak sortzeko eta, batez ere, topiko horiek zabaltzeko bide nagusietakoa izan zen Ernest Hemingway idazle amerikarra. Bere liburu eta artikuluetan agertzen den Iruñeak oihartzun handia izan zuen mundu osoan, eta hortik datorkio festari, neurri handi batean, egun duen ospea, eta horrek dakarren guztia. Beraz, beste helburuetako bat izan daiteke idazlearen eragina festaren bilakaeran, eta

**F**estak bi alde ditu: instituzionala eta herritarra. Azken hau berreskuratu nahi dugu jardunaldi hauetan».


du, eta hasierako urteak lan asko eta emaitza gutxi eskaintzen bazituzten ere, azkenotan gero eta ezagunagoak dira. Iaz, kasu, hiru egunetan sartu behar izan zituzten potentzia eta komunikazio guztiak. Nolanahi ere, garbi dago adituendako gaiak direla, eta ikertzaileez gain, ez da sobera jende azaltzen bertara.

'Nafarroako makila-dantzak' izena zuen gaiak zabaldu zituen jardunaldiak, eta hortik aurrera ondoko gaiak izan dira aztergai: giza-dantzak; herri musika, soinuariak eta musika tresnak; festa tradizionala eta hiri-gizarte kultura; folklorea eta herrien nortasuna; kultura tradizionala, gaurko egoera; herri kirolak eta jokoak; emakumea herri kulturaren; eta mito, errito eta sineskerak. Jardunaldi guztien emaitzak argitaratuta edo argitaratzeko bidean daude. Aurtengoetan parte hartzeko izenburua eta laburpen txiki bat bidali behar dira, uztailaren 30a baino lehen, eta behin-betiko testua, irailaren 30a baino lehen, ondorengo helbidera: Descalzos kalea 65, behea. 31001 Iruñea. Telefonoa: 22 31 07.



gk) KARRIKIRI euskaraz niri!

# «Neronek erabakitzen dut tira»



Iruñean paratu duen erakusketaren aurrean.

JOXE LACALLE

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

**EGUNKARIA.**— Irakurle asko azken orritik, zure tiratik hain zuzen ere, hasten dira zure egunkaria irakurtzen. Zer esan nahi du horrek, oso ona zarela ala jendea oso alferra dela?

**CESAR OROZ.**— Guztiok alfer samarrak gara, eta nire irudiko hor dago kokka. Askoz errazagoa da marrazki bat begiratzea testu bat irakurtzea baino, eta guztiok errazena egitera jotzen dugu. Batez ere marrazkia azken orrialdean badago.

**EGUNKARIA.**— 'Siempre p' delante' jarri diozu izena zure liburu kaleratu berriari. Nafarroa jakin bat definitzen du horrek, Nafarroa sakona edo. Nafarroa horretako partaideztat al duzu zure irakurle tipoa?

**OROZ.**— Nik nire irakurlea zeharo arrunta dela esanen nuke, gazte samarra agian. Gustatuko litzaidakeen gauza bakarra zera da, jendea tira irakurtzeko orduan kritikoa izatea. Tira irekia izatea eta debate eragitea gustatuko litzaidake, bai.

**EGUNKARIA.**— Behin aitortu zenuenez, irakurle tipo horren arreta zureganatzeko orduan, marrazkiari baino ideiarri ematen diozu garrantzirik handie-

na. Gag iturri amaitezina zara, ala gogor estutu behar duzu zure burmuina gag zuku hori lortzeko?

**OROZ.**— Oso zaila da inspirazioa besterik gabe zure atean jotzera etortzea. Hoberena eseri eta lan egiten hastea da. Ni egunero ideia jakin batean oinarriturik tirak egiten hasten naiz. Beti zerbait esateaz gain grazia bilatzen saiatzen naiz. Hori da zailena; izan ere, batzuetan zerbait esaten duzu baina graziaz gabe, eta beste batzuetan sekulako txistea asmatzen duzu, baina deus ez duzu esaten. Dena dela, marrazkia ere garrantzitsua da.

Garrantzitsua da, baina marrazki txar batekin ez dago tira onik egiterik.

**EGUNKARIA.**— Ideiak hautatzerakoan, segitu behar al duzu nolabaiteko lerro editorialik?

**OROZ.**— Nik neuk erabakitzen dut tira zeri buruz egin. Beti jendeak hitz egiten duenari buruzko tirak egiten saiatzen naiz. Argi dago, dena dela, politika ezin duzula besterik gabe alde batera utzi, batzuetan gogor samarra bada ere.

**EGUNKARIA.**— Politika gaiak bezala, zure tirak batzuetan oso gogorak dira. Zure tirak direla medio, zein dira gehien

## Hamar pertsonaia hamar hitzetan

J.K.L. / IRUÑEA

- Ezkurra?
- Bere garaia pasatu da.
- Zabalza?
- Umore oneko gizona.
- Spasic?
- Nire onerako kontratua berriro beharko liokete, taldearen onerako, berriz, ez.
- Martin?
- Une ezegokian toki ezegokira heldu da.
- Jaime?
- Komikigile guztiok nahi dugun politikaria da. Erreali-

tatean beti fikzioa gaintzea lortzen du.

- Alli?
- Bere kabuz aritzen den frankotiratzaile.
- Sanz?
- Itzalpeko lehendakaria.
- Lopez Borderias?
- Ez dakit oso ongi zertan dabilen.
- Urralburu?
- Ez zuen eserlekua uzten jakin.
- Zu zeu?
- Tipo irekia.

haserretu direnak?

**OROZ.**— Fermin Ezkurrari, esaterako, badakit nire tirak ez zaizkiola batere gustatzen. Ezta Urralbururi ere. Itoizkoek ere eskutitz bat bidali zidaten. Nik hori guztia onartzen dut. Oso ongi iruditzen zait jendeak nire tira irakurtzea eta horren aurrean zerbait egitea, Ni ez naiz erabateko egiazen jabe.

**EGUNKARIA.**— Gehienetan Nafarroako pertsonaia lantzen dituzu zure tirtan. Aldatuko al zenituzke pertsonaia horiek Estatu osoko pertsonaiekin Jaso al duzu horretarako eskaintzarik?

«Nik neuk erabakitzen dut tirak zeri buruz egin. Jendeak kalean hitz egiten duenari buruz egiten saiatzen naiz».

**OROZ.**— Ez dut inoiz horrelako eskaintzarik jaso. Bakoi-tzak berea egin behar du. Nahiago dut hemengo pertsonaiekin lan egin, hobeto eza-gutzen baitut bakoitza nolakoa den. Gusturago aritzen naiz. Dena dela, batzuetan kanpoko pertsonaiekin lan egiten dut. Felipe, Aznareta Idigoras maiz ateratu ditut tirtan.

**EGUNKARIA.**— Ez duzu oraingoz, beraz, Madrilgo egunkari batean zure marrazkiak argitaratuko. Eta 'TMEO' edo antzeko fanzine batean, argitaratuko al zenuke zerbait luzeagoa?


**OROZ.**— Inoiz egingen dut, zerbait luzeagoa egiteko gogo baitaukat; izan ere, gogorra eta astuna da oso egunero-tirtan aritzea.

**EGUNKARIA.**— Aurtengo Sanfermintean zenbat peñek eramanen dituzte pankartan zure marrazkiak.

**OROZ.**— Bik, asko jota.

# Cesar Oroz

KOMIKIGILEA



SOSLATA

## Allirekin batera

Iruñean jaio zen duela 25 urte. Enpresaritzatik ikasketak egin zituen Navarrerria kalean hirugarren mailara heldu zen arte. Hattik, enpresak gustukoak ez zitu-ela eta marrazteari ekin zion, eta duela hiru urte 'Diario de Navarra' egunkariako atzeko tira marrazten hasi zen. «Allirekin batera jabetu nintzen karguaz», dio irribarretsu. Hain zuzen ere Alliren agintaldian zehar marraztutako 200 tira biltzen dituen 'Siempre p' delante' liburuxka plazaratu zuen joan den astean eta, halaber, beste 100 tirarekin erakusketa zabaldu zuen Maisonnave hotelean. Hona hemen, alboko elkarrizketan, bere arrakastaren oinarria.

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

**SAN MIGUEL**  
(LONTO ALFABETATUGABEA)



**LULUBEL**  
(ARDI FUNTSIKGABEKOA)



**NOSKI JATOR**  
(AUTODIDAKTOA)



**XABIER KARRURU**  
(INSUMISHO MAN)

